



Saioari hasiera emateko, haurrei adieraziko diegu helduak gurekin ditugula, ez gaudela bakarrik. Txikiak ginenean, gurasoek eskutik helduta eramaten gintuzten, eta gaur egun ere zaintzen gaituzte.

«Noiz sentitu duzue gurasoen laguntza?». Haur bakoitzak esperientziaren bat kontatu dezala.

«Jesus hil zenean, apostoluak triste gelditu ziren; bakarrik sentitzen ziren. Baina Jesusek, piztu zenetik 50 egunera, bere espiritua bidali zien. Eta, orduetik aurrera, ez ziren gehiago bakarrik sentitu».

Irakur dezagun ondoko orrian datorren ipuina.

Ipuina irakurri ondoren, galdetu:

«Zer esan zigun Jesusek, non aurkituko genuela?»

- Laguntza behar duen jendearengan
- Biblian
- Eukaristia ospatzeko elkartzen garen tokietan».

«Jainkoa ezin dugu ikusi, baina sentitu bai. Gainera, bere Espirituak indarra ematen digu, ongia egiteko, pazientzia izateko, zoriontsu izateko, partekatzen jakiteko, besteei laguntzeko...».

Usoaren irudia eman, eta makilari itsatsiko diogu. Denbora izanez gero, has daitezela margotzen; bestela, etxean margotuko dute.

Kandela piztu eta, denok elkarri eskua emanda, *Gure Aita* errezatuko dugu.



- Kirol talde baten istorioa irakurriko dugu:

*Ikastetxe batean, kirol taldea osatu zuten mutiko eta neskatuen taldea zegoen. Elkarrekin entrenatzen eta lehiatzen zuten. Batzuetan, irabazi egiten zituzten partidua eta beste batzuetan, galdu; baina ez zitzairen axola, askoz atseginagoa zelako beraientzat kirola elkarrekin egitea.*

*Behin batean, partidua baten bezperan, Alicia taldekidea ospitaleratu zuten pneumoniagatik. Gainerako taldekideak atsekabeturik zeuden eta ospitalera joan ziren Alicia bisitatzerako. Egia esan, ez zuten biharamuneko partidua jokatzeko gogorik.*

*Berak ezin zuela partiduan egon baina bere indar guztiez animatuko zituela eta asko poztuko litzatekeela partidua jokatzeko balute esan zien Aliciak.*

*Hitz hauek entzunda, moralez eta jokatzeko gogoz bete ziren.*

*Partidua polita izan zen. Egun hartan inoiz baino gogo eta bultzada handiagoaz jokatu zuten. Hurbil sentitu zuten Alicia, beraien ondoan ez bazegoen ere.*

Ondoren, elkarrizketan jardungo dugu, galdera hauek aintzat hartuta:

- Nola geratu ziren neska-mutikoak berria jakitean?
- Zer gertatu zen ospitalean?
- Zer gertatu zen partiduan?

Aliciaren adiskideak triste zeudela berarekin egoterik ez zutelako baina haren adorea jaso zutela partidua jokatzeko azalduko die katekistak. Gauza bera egin zuen Jesusek bere ikasleekin Espiritu Santua utziz. Honi esker, hobeto ulertu zuten Jesusek irakatsi ziena eta indarra eman zien zailtasunak gainditu eta Jesusi jarraitzeko.

Espiritu Santuaren eta bere fruituen  
abanikoa egin.

Margotu, moztu eta makila txiki batean  
Itsatsi.

